

ADIMEN ARTIFIZIALAREN ARLOAN DIZIPLINA ARTEKO IKERKETA-TALDEEK GARATUTAKO LANKIDETZAKO IKERKETA-PLANAK FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAKO BERRESKURATZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU

Helburua:

Deialdiaren helburua da laguntzak ematea adimen artifizialaren arloko ikerketa-planak finantzatzeko lankidetzan, diziplina arteko ikerketa-taldeek garatuak, Europako berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan.

Horien bidez, diziplina arteko ikerketa disruptiboa sustatu nahi da adimen artifizialaren arloan, ikuspegi hori Espainiako ikerketa-kulturan txertatuz, ikertzaileen arteko interakzio hobea eta ikerketaren zeharkakotasun handiagoa ahalbidetuz.

Jarduketan iraupena bi urtekoa izango da, eta ezin izango da 2025eko abenduaren 31 baino luzeagoa izan. Gauzatzeko epea emakida-ebazpenean zehaztuko da..

Gaiak:

Erronka teoriko-teknikoak, Kognizioa, Algoritmia aurreratua, Sistema fisikoak, Giza eta makina arteko elkarreragina, Erronka sozial eta politikoak, Ingurumen-inpaktua, Hizkuntzaren teknologiak, Teknologia kuantikoak, IA aplikazio berriak

Onuradunak:

- Ikerketako erakunde publikoak.
- Unibertsitate publikoak, unibertsitate-institutuak eta unibertsitate pribatuak.
- Ikerketa sanitarioko institutu akreditatuak.
- Estatu mailako teknologia-zentroak eta Berrikuntza Teknologikoari Laguntzeko Estatu mailako zentroak.
- I+G+Bko beste ikastetxe publiko batzuk.
- I+G+Bko ikastetxe pribatuak.

Eskaerak aurkezteko epea:

Uztailak 13 – Irailak 8 2023 (UPV/EHU epea)

Uztailak 13 – Irailak 15 2023 (Kanpo epea)

Erakunde eskatzaile bakoitzak eskari-kopuru mugagabea aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

Eskaera-aplikaziorako sarbidea:

Erakunde koordinatzailearen legezko ordezkariak eskabide-inprimakia eskuratu ahal izango du, formularioa eskabide-aplikazioaren bidez bete eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa erantsi beharko du. Bete eta baliozkotu ondoren, behin betiko formularioa eskabide-aplikaziotik bertatik elektronikoki sinatzeko aukera izango duen pertsona bakarra izango da.

Eskabide-inprimakia erantzukizunpeko adierazpen bat jasotzen du, eskatzaileak oinarri arautzaileetan eta dagokion deialdian ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazten duena. Unibertsitate Ministerioaren Egoitza Elektronikoak aurkeztuko ditu agiriak, <https://universidades.sede.gob.es/>

Informazio guztiaren Web orrialdea: [Ayudas para la financiación de planes de investigación en cooperación en el área de la inteligencia artificial desarrollados por grupos de investigación interdisciplinares - \(universidades.gob.es\)](https://universidades.gob.es/)